

UDALETIK

Informazio buletina 4 zk.

EKAINA 2017



Argazkia: KINUKA (ordenagailuan egindako fotomuntaia).

PORTUA OINEZKOENTZAT IRABAZIKO DA UDAN

EKAINAREN 28TIK IRAILAREN 10ERA ARTE

Urtero bezala, uda sasoiari, portua trafikoarentzat itxi egiten da aste egunetako arratsaldeetan eta asteburuetan egun guztian zehar. Portua oinezkoentzat gune bihurtu nahian, aurtengo uda sasoiari, ekainaren 28tik irailaren 10era arte, baita arratsaldez eta asteburuetan ere, itsasertzeko aldean (Marina tabernatik Komandan-

tzia parera arte) ezin izango da aparkatu. Eguerdiko 14:30etatik hurrengo goizeko 8:00ak arte debekatuta egongo da aparkatzea. Goizetan berriz, trafikoentzat eta zamaketarako zabalik egongo da. Herrian daukagun lekurik ederrrenetarikoa oinezkoentzat eskuratu nahi da eta guztion onerako izango delakoan gaude.

- Herritarrentzako aparkalekuak
- Abaroa Jauregia
- San Andres auzoko urbanizazio proiektua
- Paskual Abaroa etorbideko urbanizazio berria
- Eskola publikoko leihoak II. fasea
- Gazteei zuzendutako apartamentuak
- Udal lan poltsak
- Santa Katalinako pasealekua II. fasea

LEKEITIO ZEURE ERARA egiteko!



www.lekeitio.eus



udala@lekeitio.eus



656702508



[@Lekeitio_Udala](https://twitter.com/Lekeitio_Udala)



youtube.com/LekeitiokoUdala



facebook.com/LekeitiokoUdala



lekeitioko udala

2016EKO BALANTZEA

LEKEITIOKO UDALAK ZEINTZU GASTU IZAN DITU 2016 URTEAN?

Pertsonal gastuak (Goikarguak, funtzionarioak, laboral finkoak, ... baita G.Z., elkarkidetzatza, seguro kolektiboa, prestakuntzak, ...).	3.186.110,82 €
Gastu arruntak (Eraikinak, makineria, instalazioak, garraioak, bulego materiala, elektrizitatea, erregaiak, komunikazioak, garbiketara, kanpoko beste enpresak, ...).	2.666.439,86 €
Interesak.	22.335,95 €
Transferentzia arruntak (eskola, ikastola, mankomunitatea, garapen agentzia, elkarte eta beste batzuei dirulaguntzak...)	709.599,07 €
Inbertsio errealak (eskola, san jua, isuntza, gaztegunak, abaroa...)	993.828,80 €
Kredituen amortizazioa.	615.692,87 €

LEKEITIOKO UDALAK ZE DIRU ITURRI IZAN DITU 2016 URTEAN?

Zuzeneko Zergak (IBI, Ibilgailuen gaineko Zerga, IAE).	1.315.426,47 €
Zeharkako Zergak (Eraikuntzen gaineko Zerga)	179.804,26 €
Tasak eta bestelako Zergak (Zaborrak, estolderia, merkaturak, herriko bide publiko pribatuz erabiltzea: edukinontzia, toloak, mahaiak, garajeen sarrerak, ...)	1.554.091,03 €
Transferentzia arruntak (Udalkutxa: Itundutako zergetako partaidetza Aldunditik, dirulaguntzak, ...)	4.438.800,48 €
Ondare sarrerak: Alokairuak: Trinkete, Alokabide - etxebizitza sozialak, ...	74.813,79 €
Inbertsio errealean enajenazioa eta beste sarrera batzuk (garavillako garageak)	144.358,00 €
Kapital transferentziak	896.996,37 €

EL PUERTO DE LEKEITIO PEATONAL EN VERANO

**DESDE EL 28 DE JUNIO
HASTA EL 10 DE SEPTIEMBRE**

Como todos los años, este verano volverá a cerrarse al tráfico el puerto las tardes de los días laborables y los fines de semana. Este verano, a diferencia de los anteriores, no podrá estacionarse, convirtiéndose así en una zona peatonal desde el 28 de junio hasta el 10 de septiembre en horario de 14:30 a 8:00 de la mañana

Por las mañana, los vehículos podrán acceder al puerto para realizar tareas de carga y descarga. El objetivo de la medida es ganar uno de los espacios más bellos y significativos del municipio para el disfrute de peatones.



PASKUAL ABAROA ETORBIDEKO URBANIZAZIO BERRIRAKO PROIEKTU GARRANTZITSUA MARTXAN

Lekeitioko Udala Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo-Udal Sarearekin batera Paskual Abaroa etorbideko urbanizazio proiektua lantzen hasi da. Herrian guztiz beharrezkoa den proiektua jarri du martxan Lekeitioko Udala: Paskual Abaroa etorbideko urbanizazioa

Herrian guztiz beharrezkoa den proiektu estrategiko honen eremua Bergara kalea paretik Talaraino izango da eta Plaza Merkaturako inguruko kaleak ere landuko ditu.

Azpiegiturak (saneamendu sarea, ur hornidura, elektrizitate eta telekomunikazio-sarea, kale argitasuna...) aztertzea eta egokitzea da helburua. Horrez gain, aparkalekuak, espaloiak eta bideak ordenatuko dira, irisgarritasuna bermatu eta kalea egokitu modu erosoan erabiltzeko.

Proiektua idaztea urte amaierarako bukatuko da.





SAN ANDRES AUZOKO URBANIZAZIO PROIEKTUA IDAZTEKO LANAK MARTXAN

San Andres auzoa eta ingurua urbanizatzeko proiektua idazteko lanak adjudikatu ditu udalak. Proiektua idazteko epea 4 hilabetekoa izango da eta auzokideen parte hartzea sustatuko da. Lekeitioko Udalak lehentasuna eman nahi dio San Andres auzoa urbanizatzeko proiektuari.

Auzo txiki hau 1966-1967 urteetan

eraikitako bost blokek osatzen dute. Eremua hasieratik amaitu gabe egon da, espazio publikoaren, kaleen eta sarbideen urbanizazioari dagokionez, eta oraindik amaitu gabe jarraitzen du leku batzuetan. Auzoak irisgarritasun falta, inguruarekiko konexio traketsa eta urbanizazio zaharkitua ditu arazo handien artean.

Hori dela eta, auzokideen urteetako eskariari erantzunez, San Andres auzoko espazio publikoaren hobekuntza orokorra posible egingo duen urbanizazio obren proiektua idatziko da eta ondoren proiektuaren exekuzioa burutuko da. Proiektua lantzerako, zehazterako eta onartzerako orduan auzokideek parte hartuko dute.



PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE SAN ANDRÉS

Adjudicada la redacción del proyecto de urbanización del barrio de San Andrés y su entorno, se abre ahora un plazo de cuatro meses para la redacción del proyecto, que se basará en las propuestas de las/los vecinos/as. El Ayuntamiento de Lekeitio quiere dar prioridad al plan de urbanización de este barrio que se creó en 1966 y 1967 con la construcción de cinco bloques de viviendas que desde el principio han carecido de una apropiada urbanización de accesos, calles y aceras. Atendiendo a las peticiones vecinales, el Ayuntamiento redactará primero un proyecto para la urbanización que mejorará notablemente el espacio público del barrio de San Andrés y después llevará a cabo la ejecución de las obras.

ABAROA JAUREGIAREN ERABILERA ZEHAZTEKO LAN SAIO ZABALAK



2016. urtean Lekeitioko Udalak Abaroa Jauregiko teilatua konpondu ondoren, aurten 2017an, eraikinak eman ahal dituen erabilera aukerak mahairatuko dituen proiektua gauzatu nahi du.

Proiektua idazterako orduan laguntza teknikoa emateko lizitazio prozedura zabaldu zen otsailean, eta oraingoan proiektua zehaztu eta idazteko epea

9 hilabetekoa izango da. Epe honen lehenengo fasean herritarren parte hartzea bultzatuko da, Udalaren "Lekeitioko Zeure Erara" ildoaren prozesu honetan ere jarraituz.

Aurreko urteetan egindako prozesu parte-hartzailean jasotako informazioaz baliatuz, Abaroa Jauregiaren erabilera zehazteko lanketan aurrerapauso bat eman nahi da. Horretarako lantaldeak edo mahaiak antolatzen gabiltza, arlo ezberdinetan adituak direnekin, herriko eragileekin eta herritarrekin osatuak.

Lehenengo lan saioak ekainaren 6an eta 8an arratsaldez izango dira Barandiaran Aretoan. Hori dela eta, Lekeitioko Udalak herritarrei dei egiten die prozesu honetan parte hartu dezaten. Horretarako abaroajauregia@lekeitio.eus e-maila zabaldu da interesa daukan herritar orok izena eman dezan (Udaleko bulego orokorretan izena eman daiteke baita ere).



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

UDA HONETAN ESKOLETAKO ERAIKIN GORRIAREN BERRIZTATZEA OSATUKO DA

Udalak, Lekeitioko Herriko Eskolako eraikin gorriko leihoak aldatzeko helburuarekin jarraituz, bigarren eta azken fasea burutuko du uda honetan, umerik ez dagoenean. Bigarren fasean, Udalak eraikin bien arteko fatxadako leihoak eta behe solairuko ateak aldatuko ditu eta honek 53.367,05 euroko inbertsioa suposatuko du. Kontuan izanda 40 urte baino gehiago dauzkate, Herri Eskolako eraikin gorriko leihoak aldatu beharra izan dute, umeen segurtasuna eta osasuna hobetzeko eta energia galerarik ez egoteko. Obra hauek aprobetxatuz, ikasgelak moldatzeko eta egokitzeko lan ezberdinak ere burutuko dira. Guztira beraz, lehen eta bigarren fase hauetan, 99.147,25 euro inbertituko dira Lekeitioko Herri Eskolako eraikin hau berriztatzeko.

MENDIETA ONTZIOLA EGONKORTU ONDOREN, LEKEITIOKO UDALAK ONDARE-AZTERKETA LANAK HASIKO DITU

2016. urtean Lekeitioko Udaleko Bulego teknikoak Mendieta Ontziolaren egoerari buruz egindako txostenaren arabera, Mendieta ontziola jausteko arriskuan zegoela eta egonkortasun lanak egin behar zitzaizkiola aipatzen zuen monumentu singularra ez galtzeko. Egoera larri honi aurre egiteko, Lekeitioko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, pasa den neguan egonkortasun lanak burutu zituen egurrezko egituretan. Egonkortasun lan hauek bukatu ondoren, hurrengo pausoa, ondare-azterketa bat egitea da. Ikerketa hau egiteko, herriko arkeologo eta historialari baten zerbitzuak kontratatu dira. Ondoren, aurtengo urteari begira, ontziolaren berreskuratze proiektua egitea da. Udal gobernuaren ustez, guztion erantzukizuna da monumentu hau zutik eta baldintza on eta seguruetan mantentzea.

TRAS APUNTALAR EL ASTILLERO MENDIETA, EL AYUNTAMIENTO CONTINÚA TRABAJANDO EN LA RECUPERACIÓN Y CONSERVACIÓN DE ESTE MONUMENTO SINGULAR

Según el informe realizado por la Oficina técnica municipal en 2016, el astillero Mendieta corría el riesgo de derrumbarse y hacía falta realizar trabajos urgentes para evitar perder este monumento singular. Haciendo frente al problema, el Ayuntamiento de Lekeitio, con la colaboración de la Diputación Foral, ejecutó los trabajos de apuntalamiento del astillero. Terminada la estabilización el próximo paso es realizar una evaluación patrimonial del edificio, que llevará a cabo un arqueólogo e historiador de Lekeitio. A continuación, se prevé realizar este mismo año un proyecto para la definición de usos y rehabilitación del conjunto, el mejor astillero de ribera de Euskadi y uno de los mejores del Cantábrico.



SANTA KATALINAKO PASEALEKUA LUZATZEKO OBRAK UDA OSTEAN HASIKO DIRA

Lekeitioko Udalak Santa Katalina ibilbidearen urbanizazioa eta egokitzapenaren 2. faseari dagokion proiektua jendaurrean jarri du.

Iradokizunak eta alegazioak egiteko 20 eguneko epea zabaldu da.

Lekeitioko Udalak, Santa Katalina Ibilbidea luzatzeko proiektua idatzi eta hau 2017ko maiatzaren 19an egindako Tokiko Gobernu Bazarrean onartu ondoren, dokumentua jendaurrean jarri du 20 eguneko epean, interesa duten herritarrek berau aztertu eta iradokizun eta proposamenak aurkez ditzaten.

Lekeitioko Udalak orain dela 6 hilabete oinezkoentzako zabaldu zuen Santa Katalinako pasealeku berriaren ibilbidea eta herriko eraztun berdea osotzen joateko helburuarekin jarraituz, pasealekua luzatu nahi du kulunkak edo kolunpioak dauden gunera arte.

Maiatzaren 22an, Santa Katalina ibilbidearen urbanizazioa eta egokitzapenaren (2. fasea) hasierako onarpena argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta ekainaren 16ra arte herritarrek jakitun geratzeko eta alegazioak aurkezteko epea dago.

Proiektua www.lekeitio.eus web orrialdean (Santa Katalina) edo Lekeitioko Udaleko Bulego Orokorrean dago ikusgai.

Proiektu hau gauzatzeko dirulaguntza bi jaso ditu Lekeitioko Udalak: alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak sailaren laguntza eta bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren dirulaguntza.

BOSTGARREN KONTENEDORA UDAZKENEAN HELDUKO DA LEKEITIOIRA

Hondakin organikoak batzeko sistema, 5. Kontenedorea delakoa, urtea amaitu aurretik helduko da Lekeitioira. Udazkenean informazio kanpaina martxan jarriko da herritarrei sistema berri hau azaltzeko eta herritarren parteharzteaz bultzatzeko guztion ardura baita bilketa selektiboa egitea eta ondorioz birziklapen tasak igotzea. Udalak jarriko duen sistema honek, bai begetala zein animal hondakin organiko guztia batuko du eta nahiz eta boluntarioa izan, jendearen laguntza eta inplikazioa eskatzen da. Lekeitioko Udala zabor bilketa selektiboaren aldekoa da beti sistema boluntarioa eta herritarrarentzako ahalik erosoena jarritz; aldi berean bilketa selektibo eraginkorra bultzatuko du, kontzientziazioan eta herritarren arduraren oinarrituz.

Bestalde, herrian iada dauden kontenedoreak ere berriztu egingo dira (paper eta kartoia kontenedorea / errefusa kontenedorea).

PARA FINALES DE AÑO SE IMPLANTARÁ EL QUINTO CONTENEDOR EN LEKEITIO

El sistema de recogida de residuos orgánicos, el llamado 5º llegará a Lekeitio para finales de año. En otoño se pondrá en marcha una campaña para explicar a la ciudadanía este nuevo sistema. El Ayuntamiento solicita la colaboración de la ciudadanía porque aumentar las tasas de reciclaje es una labor de todo el pueblo. Al quinto contenedor deben ir los residuos orgánicos de origen vegetal y animal y aunque su utilización es voluntaria.

El Ayuntamiento implantará el sistema del 5º contenedor poco a poco impulsando su utilización por medio de la sensibilización y concienciación ciudadana. El objetivo del Ayuntamiento de Lekeitio es aplicar la mejor gestión de los residuos posible, impulsando la recogida selectiva y el aumento del reciclaje

UDAL LAN POLTSAK

Lekeitioko Udalak aldi baterako premiak estaltzeko lan poltsak jarriko ditu martxan. Maiatzaren 29an kaleratuko dira oinarriak. Lan poltsa horiek ondokoak dira: **Peoi, Kale garbitzaile eta eraikin garbitasuneko peoi; azoka arduradun, atezain / bedel, pizina monitorea eta sorosle.** Lehenengo hiru poltsak osatzeko lehiaketa-oposaketa egingo da. Pizina monitore eta soroslerako lan poltsetarako berriz, oinarrien arabera eskatutako titulazioa daukaten hautagaiek eskariak aurkezteko epearen barruan eransten dituzten merezimenduak baloratuko dira.

Izen emateko epea: maiatzaren 29tik ekainaren 23ra



GAZTEEI ZUZENDUTAKO APARTAMENTUAK ERAIKITZEKO PROIEKTUA

Lekeitioko Udala Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin harremanetan dabil 2010-2011ko plana berreskuratu eta Letraukuan gazteei zuzendutako apartamentuak eraikitzeko. Alokairura bideratutako apartamentuak izango dira, 5 urteko errotazioa izango dute gehienez eta 30-50 metro karratuko 46 apartamentu eraikitzea espero da.

Dagoeneko proiektua burutzeko lehenengo pausuak eman dira: maiatzean ospatutako Osoko Bilkuran Eusko Jaurlaritzari apartamentuak eraiki-ko diren partzela emateko erabakia onartua izan zen.

Bestalde, gazteen emantzipazioa bultzatzeko Lekeitioko Udal Gobernuak 18 - 35 urte bitarteko adina duten eta Lekeition bizi diren gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak emon ditu. Lehenengo aldia da Lekeitioko Udalak mota honetako diru-laguntzak martxan jartzen dituela eta 2017ko ekitaldirako 15.000,00 euro bideratu dira.

EL AYUNTAMIENTO DE LEKEITIO RECUPERA EL PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE APARTAMENTOS PARA JÓVENES EN LETRAUKUA

El Ayuntamiento se ha puesto en contacto con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco con el objetivo de recuperar el plan 2010-2011 que preveía la construcción de 46 apartamentos sociales para jóvenes en Letraukua, con una rotación de 5 años y una superficie de entre 30 y 50 metros cuadrados. El Gobierno Municipal ya ha dado los primeros pasos para convertir en realidad este proyecto con la aprobación en sesión plenaria de la concesión de las parcelas para la construcción de estas viviendas. Además, el Ayuntamiento de Lekeitio ha dotado, por primera vez, ayudas económicas para favorecer la emancipación de los/las jóvenes de 18 a 35 años por un importe total para este año de 15.000 euros.



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

5

LEKEITIOKO MUSIKA BANDAREN 150.URTEURRENA 12 HILABETE; 12 KONTZERTU

Aurten 150 urte beteko dira musika bandak bere ibilbidea hasi zuenetik. Ospatzeko urte osoko egitaraua prestatu da: kontzertuak, hitzaldiak eta musika astea, besteak beste. Eta horrez gain, bandaren historia laburbilduko duen dokumentala prestatzen

ari dira. "12 hilabete 12 kontzertu" atalean, izenak adierazten duen bezala, hileroko kontzertua izango da: zazpi kontzertu Lekitto Musika Bandaren eskutik eta beste bost kanpoko musika banden eskutik. Harribitxia



HURRENGO KONTZERTUAK:

Ekainak 17: Errenteriako Musika Banda. Elizan, 20:00etan.

Uztailak 15: Lekitto Musika Banda eta Donostiako Orfeoia. Plazan, 23:00etan (Udako Kontzertua).

Abuztuak 25: Lekitto Musika Banda. Nautika aurrean, 22:00etan (Gau Magikoa).

Irailak 2: Lekitto Musika Banda. Plazako kioskoan, 13:00etan.

Urriak 7: Hernaniko Musika Banda. Elizan, 20:00etan.

Azaroak 18: Lekitto Musika Banda. Nautika aurrean, 12:30ean (Santa Zezilia).

Abenduak 29: Lekitto Musika Banda. Elizan, 20:00etan.

HITZALDIAK:

Hitzaldietan musika bandak hainbat musika espresioekin duen loturari buruz hitz egingo da, rockarekin edo jazzarekin, eta Musika bandaren historiari buruzko hitzaldia ere izango da.

Abuztuak 24: Musika banda eta Jazza. Gorka Benítez eta Alejandro Mingot.

Urriak 10: Musika Bandaren hastapenak. Fernando Garatea.

MUSIKA ASTEA, URRIAK 7-14

Herriko musika talde desberdinen emanaldiak eta dokumentalaren estreinaldia izango dira Musika Astearen

Urriak 7: Aittitta Makurra txarangaren kalejira eta Hernaniko Musika Banda. Elizan, 20:00etan.

Urriak 8: Itxaropena Txistulari taldearen kalejira.

Urriak 9: Musikaia musika eskolaren kalejira.

Urriak 10: Hitzaldia: Musika bandaren hastapenak.

Urriak 11: Ondarroako metal taldearen kontzertua. R. M Azkue aretoan.

Urria 12: Donostiako Big-banda. Ikusgarri aretoan

Urriak 13: Musika Bandaren dokumentala Ikusgarri aretoan eta Rock kontzertua Talakon.

Urriak 14: Aratuste Alai Estudiantinaren kalejira eta Lekitto Musika Bandaren kontzertua, eguerdian bazkaria eta Jazz kontzertua.

Horregatik, lekeitiarroi ospakizun-urte honetako ekitaldi guztietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

GARAJEAK SALGAI



Atea Kalea 34an
(lehengo Garabilleneko eraikinean)


INFORMAZIOA

Lekeitioko Udaletxean
Bulego Teknikoan
Tel.: **94 603 41 00**

EKITALDI BEREZIA: AEROPLANO BI PASATA, BAT ITSASORA JAUSI!

Uztailaren 2an 100 urte betetzen dira Lekeitioko abestirik ezagunetarikoa inspiratu zuen istorioa gertatu zena. "Aeroplano bi pasata, bat itsasora jau-si..." Lekittara baldin bazara segurue-nik abesten egongo zarena. Datorren uztailaren 2an, San Pedro jai herrikoie-kin bat eginik, 100 urte betetzen dira

euskal kantutegiaren parte den abesti honetan kontatzen den istorioa gerta-tu zena. Hori dela eta, mendeurrena-ren ospakizun berezi moduan, San Pe-dro jaien egitarau barruan egongo da abestia, herritar guztiek parte hartze-ko aukera izango duten ekitaldi baten bitartez. Adi egon!



*Aeroplano bi pasata
bat itsasora jau-si (bis).
Ekarri
Severianok ekarri (bis)
Severianok
barran pondo emonda itxi.
Goixeko sei tt'erdijetan
Asentsio burutsik (bis).
Sabiño
ezeik eruan Sabiño (bis)
ezeik eruan
bestela danok preso.*

1917ko uztailaren 2an, Kantauriar kostaldea ikuskatzen omen zeuden ur-hegazkin frantziar bi pasatu ziren Baionatik Matxixakorantz arratsaldeko 5:00ak aldera. Ordu betera, bueltan zetoze, hegazkin bietatik bat itsasora egin zen, matxuratuta, Lekeitioko portutik bospasei milietara.

"Miren Begoña" ontziak ekarri zuen Itsas Armada frantziarraren aeroplano matxuratu Lekeitioko barraraino. Arratsaldeko 8:30ak aldera heldu zen komitiba, ikuslez gainezka zegoen



Lekeitioko portura. Severiano Mendiola zen "Miren Begoña" ontziko patroia. Bertan egunean ezin izan zenez egin, biharamunean alkateak Bizkai-ko Gobernadore Zibilaria telefonoz deitu zion eta karta bat bialdu, gertakizuna azaltzeko. Orduan hasi zen korapilo diplomatiko-burokratiko...

Biharamunean, frantziar arrantzon-

tzi armatu bi etorri ziren isla atzera eta nagusia batean hurbildu omen zen Lekeitiara.

Badirudi, frantzesak Sabino Erkiagarekin (Sabino Marraxua), "Ama Antiguakua" ontziko patroia, jarri zirela harremanetan, hegazkina portutik ateratzeko asmoarekin, baina Bilbotik heldutako aginduak zirela eta ez zuten ezer lortu eta arratsaldeko laurak aldera alde egin zuten.

Asentsio Gezuraga Komandantziako arduraduna zen (cabo de mar). Asentziok, gertatzen ari zenez ohartu zenenan, Sabino Erkiagari hegazkina ez ateratzeko agindua eman zion, arazo larriak egongo zirelakoan. Ur hegazkin frantzesak uztailaren 5era arte egon zen Lekeitioko portuan, itsas agintaritzek arazo burokratikoak konpondu zituzten arte.

Lekeitiarrek kanta atera zioten gertakizunari.

ISUNTZA ARRAUN ELKARTEAN EMAKUMEEN TALDEA SORTU BERRI DA

Kirol esparruan oraindik emakume eta gizonen berdintasun falta islatzen da. Emakumearen presentzia txikiagoa da gizonenarekin alderatuz herri-ko ia kirol talde guztietan. Tendentzi hau orokorra da, esaterako Euskadi mailan Arraunean neska federatuen kopurua handituz doa baina oraindik bere parte hartzea ez da bat ere parekidea, Euskadin %14 da.

Orain dela gutxi sortutako LEKEITIO-KO ERREMOLARIEN taldea berdintasunaren aldeko aurrera pausua da. Hala ere asko dago egiteko eta guztion artean, udal, elkarte eta herritar emakumeen kirola sustatu behar dugu eta baita ere bere lana ikustarazi. AUPA NESKAK!!!



Isuntza Arraun Elkartearen sortu berri den nesken taldearen inarrituz Carlos Baudik eta Aritz Mughuk egindako mural eder bat jarri da.

LEKEITIOKO UDALAREN ETA LEKEITIOKO "MUSIKAIA MUSIKA" ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Lekeitioko Udalak, Lekeitioko herritarrei zuzendutako musika formazioa bultzatu nahi du herriko musika tradizioa galdu ez dadin. Harago, Musika Eskola Lekeitioko musika talde ezberdinen harrobia izan dadila da nahia, sormena gizarte garapenerako guztiz aberasgarria bait da, bai ongizate pertsonalerako bai kolektiborako. Musika Eskola bultzatu, lagundu eta sustatu nahi da eta horretarako, Musikaia musika elkarteari, alde batetik, urtean 25.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalak, eta beste aldetik, ikasturtean zehar bere jarduerak aurrera eramateko, instalazioak utziko dizkio. Garbitasuna, argi indarra, eta ura, Udalak ordainduko ditu.



EKITALDI BEREZIA: UZTAILAREN 7AN GARRAITZEKO KOMENTUAREN 400. URTEURRENA

2017ko uztailaren 7an 400 urte beteko dira Lekeitioko herriak frantziskotarrei Garraitzen komentua egiteko baimena eman zientetik. Hori dela eta, ATABAKA kultur elkarteak antolatuta, uztailaren 7an, goizeko 11:30ean, Lekeitioko herriak komentua egiteko baimena eman zieneko akta irakurriko du bertan irlan.

Egun horretan 10:15ean dago marea behera, eta, ekitaldiaren aurretik, 11:15ean hasita, ITXAROPENA elkarteko txistulariekin joango dira Isuntza hondartzatik Garraitzera, Islako Moilan zehar.

Ekitaldiaren ostean, sardina jana eta mojito edana.



TURISMOAREN DATUAK

Lekeitioko Turismo Bulegoak 935 bisitari jaso zituen Aste Santuan, apirilaren 13tik 17ra, pasa den urtean baino %20 gehiago. Bestalde, epe honetan hurbiltzen diren bisitarien jatorriak antzekoak dira: Euskaditik %32,73, Espainiar Estatutik %51,76 eta atzerritik %15,51.

Ostatuen okupazioari dagokionez, lehenengo 4 egunetako %100a izan da, eta ondorengo egunetan %80koa gutxi gora behera. Sektoreak pasa den urtearekin konparatuz bisitari gehiago egon dela ere somatu du.

ZINEMAZALE ELKARTEAREN ETA LEKEITIOKO UDALAREN ARTEKO ELKARLAN HITZARMENA

Zinemazale Elkarteak eta Lekeitioko Udalak, pasadan urtean egin zen bezala, elkarlan hitzarmena sinatu dute: Udalak elkarteak antolatutako ekintzak diruz lagunduko ditu ekintza hauek lortzen den etekina gastua baino txikiagoa denean. Autengo urtean 10.000 eurokoa izango da laguntza. Hitzarmena urtero berrikusiko dute alde biek.

Ikusgarri zine aretoan filmak proiektatzeaz gain Lekeitioko Zinemazale Elkarteak bestelako ekintzak antolatzea du helburu: antzerkia, kontzertuak, eta beste kultur ikuskizunak.

UDALEKUAK 2017

Lekeitioko Udalak antolatzen dituen udalekueetan apuntatzeko epea datorren ekainaren 9an bukatuko da. Lehentasuna Lekeitioko erroldatutakoek izango dute eta plazak mugatuak izango dira (inskripzioa noiz egin den edukiko da kontuan). Lehen hezkuntzako maila guztietako haurrei zuzenduta daude.

Uztailaren 3tik abuztuaren 31ra izango da eta txandak aste-koak izango dira (astelehenetik ostiralera). Gutxieneko umeen ratioa betetzen ez den astean ez da udalekurik egongo. Udalekuan 10:00etatik 13:00etara haurrek hainbat jarduera egingo dituzte: txangoak, ur jolasak, kirola, tailer kulturalak, adierazpen tailerrak, jolas kooperatiboak...

Lekeitioko erroldatutakoek txandako (aste) 65 euro ordainduko dute eta kanpokoek 85 euro. Izen emate fitxa Lekeitioko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar da haurraren osasun txartelaren kopiarekin batera. Bulegoak 9:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik. Informazio gehiago 946034100 telefono zenbakira deituta.

SAN ANTOLINAK ANTOLATZEN!

Urte guztian zehar, Lekeitioko Jai Batzordea lanean aritu da. Aurtengoan ere, herriko San Antolin jaiekin guztiok gozatzeko, adin guztiei zuzendutako programazio zabala borobiltzen dabilta. Aurtengoan, besteak beste, musika arloan, Txurru - DJ tirapu - DJ Josu Rodriguez, Vulcano, Huntza, Esne Beltza, Oxabi, Oihan Vega, Andrabanda feminista, etabar izango dira gure artean. Hamar urte ostean, Herri kirolak bueltatuko dira eta iaz arrakastatsua izan zen suzko zezenen kalejira baita. Sorpresaren bat ere presatzen dabil Jai Batzordea.

EL GRUPO ESNE BELTZA ACTUARÁ EN LEKEITIO EN FIESTAS DE SAN ANTOLIN

Ya es posible anunciar que los Sanantolines de Lekeitio contarán este año con los conciertos de Esne Beltza, Oxabi, Oihan Vega, Huntza y Vulcano, además de las actuaciones de Txurru + DJ Tirapu + DJ Josu Rodríguez y Andrabanda feminista. Diez años después el calendario de fiestas recupera los herri kirolak y tras el éxito del año pasado, se repite el encierro con los toros de fuego. Y habrá más sorpresas.



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508



9



SPINNING MARATOIA TALAN

Ikusita jendeak gogoz hartzen duela eta arrakasta izan duela aurreko edizioetan, aurten ere, spinning maratonia ospatuko da. Ekainaren 25ean izango da hitzordua eta eguraldia lagun bada, partehartzaileak Talan itsasoari begira ibiliko dira pedalei eragiten. 80 bizikleta jarriko dira eta likidoa eta janaria eskuragarri izango dute partehartzaileek, baita kamiseta bat ere opari moduan. Izen ematea: Santi Brouard kiroldegian maiatzaren 29tik aurrera.

I. PADDLE TORNEOA UZTAILEAN LEKEITIO-MARKINA

Aurten lehenengo aldiz, Lekeitioko Udalak Markinako Udalarekin elkarlanean torneoa antolatu du. Uztailean izango da Markina eta Lekeitioko Kirol instalakuntzetan. Informazio gehiago Santi Brouard Udak kiroldegian.

KIROLEZ BUSTI ZAITEZ!!!! UDAKO IKASTAROAK, SANTI BROUARD UDAL KIROLDEGIAN

Udako Kirol eskeintza prest dago! Udako ikastaroetan izena emateko epea maiatzaren 29an zabalduko da. Spinning, aerobik, GAP, strech, jazz-funky, ballet, zumba, pilates, yoga, aquagym., igeriketa,... Eskeintza zabala!!! Informazio gehiago; Santi Brouard Udak kiroldegian.

KALATXORIEN POPULAZIOA KONTROLATZEKO KANPAINA HASI DA HERRITARREN KOLABORAZIOA ESKATZEN DA

Kalatxorien populazioa kontrolatzeko kanpaina maiatzetik uztailera doa, sasoi honetan jartzen baitituzte arraultzak kalatxoriek. Bi aldiz jartzen dituzte arraultzak eta bi edo hiru aldiz kendu behar izaten dira. Kanpaina honen bitartez, habiak non dauden lokalizatu eta arraultzak kendu egiten dira kalatxori kopurua kontrolatu ahal izateko. Lan hau egiteko, Lekeitioko Udalak enpresa bat kontratatu du eta nahiz eta, gutxi gorabehera, habien zentsu bat egon, herritarren laguntza ezinbestekoa da hauek lokalizatzeko. Hau horrela, etxeko teilatuan edo auzoko teilatuetan habiak daudelaren susmoa daukaten herritarrei, udaletxean hauen berri emateko eskaera luzatzen die Lekeitioko Udalak. Jakinarazpena udaletxera bertara etorrira edota udala@lekeitio.eus helbide elektronikora mezu bat idatziz egin leike.

CAMPAÑA DE CONTROL DE LA POBLACIÓN DE GAVIOTAS

El ayuntamiento ha puesto en marcha una iniciativa para el control de las gaviotas en el municipio.

Para que la campaña sea efectiva, es necesario conocer la localización de los nidos por lo que el ayuntamiento solicita la colaboración ciudadana de tal forma que quien tenga noticia de la existencia de algún nido, acuda al Ayuntamiento de Lekeitio o envíe un mail al correo electrónico udala@lekeitio.eus indicando la localización del mismo.

BIZKAIKO KOPA TRAIL

Bizkaiko kopa trail ospatuko da bigarren urtez herrian, zehazki, azaroaren 12an.

Lau modalitatek osatzen dute proba: **Txakurkrosa, BTT mountain bike eta ibilbide luze eta laburreko mendi martxak.**

Egunean bertan apuntatzeko aukera egongo da baina aurretiaz www.bizkaiakopatrail.com orrialdean egin ahalko da inskripzioa.



VII. BALKOI LEHIAKETA

Lekeitioko Udalak, aurten ere; Kitto Merkatarik Elkartearen laguntzaz VII. Balkoi lehiaketarako deialdia egingo du. Herritarren inplikazioaren bidez udalerriko ingurumena eta estetika hobetzea da helburua, landare eta lore-elementuek hiri-ingurune atsegina eta estetikoa lortzeko duten garrantziari balioa eman eta, horrela lekeitiarrek zein turistek goza dezaten.

Lehiaketaren baldintzak ondokoak dira:

1. Lehiaketak ekainaren 7tik uztailaren 7ra iraungo du.
2. Balkoirik onenak 200€-ko kreditua jasoko du herriko komertzioetan gastatzeko.
3. Udalak antolakuntza eta sariaren ardura hartuko du eta Kitto Merkatarik elkarteak diren Amalur eta Lourdes Lorak loradendak epaimahaia osatuko dute.
4. Parte hartzeko ez da izenik eman behar.
5. Epaileak kalerik kale ibiliko dira balkoiak ikusten.
6. Parte hartzen duten balkoi eta leihoetan landare biziak erabili behar dira apaintzeko.
7. Epaimahaia lanaren originaltasuna eta sormena izango ditu puntuazioak emateko irizpide. Balkoi osoaren itxura, lorea, lorontzien egoera (pintatua, txukun, tamaina eta itxura ederrekoak...) hartuko dira kontuan.
8. Epaileen erabakia behin-betikoa izango da.



URAREN KALITATEA: ONA
(azken 4 denboraldien emaitzetan oinarrituta)



BAINUA HARTU DAITEKE – Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hondartza honen ura astero aztertzen du.



LEKEITIOKO ISUNTZA HONDARTZA ZERBITZUAK BAINU DENBORALDIAN

2017ko ekainaren 1etik irailaren 30era

ZERBITZUAK:

- SOS postua.
- Umeak hondartzan ez galtzeko pultse-rak.
- HONDARTZA DENONTZAT programa: bainatzeko laguntza pertsonala edo materiala emateko (uztailean eta abuztuan).
- Kotxeentzako aparkalekuak: Arropain, saihebidetako 3 aparkalekuak eta hehriar zehar.
- HONDARTZARAKO BUS ZERBITZUA (geltoki bakoitzean jarriko da ordutegia):

- Bizkaibus/Lurraldebus geltokitik Isuntza hondartzara: Mandaska, Arropain, Saihebidetako bus aparkalekua, Telefonica, loar, Zita hotela.
- Isuntza hondartzatik Bizkaibus/Lurraldebus geltokira: Zita, Bonilla, Telefonica, Saihebidetako bus aparkalekua, Arropain, Mandaska.
- Santa Katalinatik Isuntza hondartzara: Txaletetako izkina, San Andres, loar, Zita hotela.
- Isuntza hondartzatik Santa Katalinara: Zita, Beitia, Merkatua, Palmera, txaletetako izkina.

Isuntza hondartza Bizkaiko hondartzen kudeaketa integratuko sisteman sartu zen 2006an, eta ISO 9001 (Kalitatea) eta ISO 14001 (Ingurumenaren kudeaketa) ziurtagiriak lortu zituen. Geroztik, urtez urte berriro dira, horretarako araututako prozedurak bete ostean.

Hondartzaren erabilpen egokia bermatzeko, Lekeitioko Udalak bere erabilera arautzeko ordenantza onartu zuen (2014/05/08ko BAO n argitaratuta). Honez gain, Kalitateari eta Ingurumenari buruzko Politika Integratuak hondartza modu egokian kudeatzeko oinarri orokorrak ezartzen ditu. Lekeitioko Isuntza hondartzako erabilera-arabidea eta jarduerak arautzen dituen Udal Ordenantza eta Kalitateari eta Ingurumenari buruzko Politika Integratua www.lekeitio.eus web orrian aurkitzen dira.



ZONA DE APARCAMIENTO RESERVADA PARA RESIDENTES

Del 28 de junio al 10 de septiembre. En horario de 14:30 a 21:30, de lunes a viernes, se señalarán tres zonas de aparcamiento para residentes. Para poder aparcar en dichas zonas habrá que adquirir la tarjeta correspondiente en la OFICINA DE TURISMO del 25 de abril al 28 de junio. Horario para solicitar la tarjeta: De martes a viernes de 10:00-13:30 y de 16:00-18:00. Precio tarjeta: 3 euros

Zonas habilitadas:

Paskual Abaroa etorbidea 26-bis a la Tala, y San Juan Talako. Eusebio Maria de Azkue (de San Bizente Ferrer a San Andrés) y Basoaldea. Zumatzeta, Buenaventura Zapirain, Otxoa de Urkiza y Agirre Solarte del nº 1 al 7.

QUIÉN LO PUEDE SOLICITAR:

Personas físicas

Condiciones:

Empadronado/a en Lekeitio con al menos un año de antigüedad. El vehículo deberá estar dado de alta en el padrón del Impuesto de Vehículos de Lekeitio y estar al corriente en su pago. El vehículo deberá encontrarse sin sanciones pendientes de pago por infracciones de tráfico cometidas en Lekeitio.

Personas Jurídicas

Condiciones:

Tener su domicilio social o sede en Lekeitio, con al menos un año de antigüedad. El vehículo deberá estar dado de alta en el padrón del Impuesto de Vehículos de Lekeitio y estar al corriente en su pago.

El vehículo deberá encontrarse sin sanciones pendientes de pago por infracciones de tráfico cometidas en Lekeitio.

Personas trabajadoras de empresas locales:

Condiciones:

La Empresa deberá tener su domicilio social o sede en Lekeitio, con al menos un año de antigüedad.

La persona trabajadora deberá acreditar su vinculación con la empresa mediante certificado de Vida Laboral.

La persona solicitante deberá acreditar ser el titular o en su defecto ser conductor/a habitual del vehículo, mediante el permiso de circulación en caso de ser titular y mediante Póliza del seguro en caso de conductor habitual.

El vehículo deberá encontrarse sin sanciones pendientes de pago por infracciones de tráfico cometidas en Lekeitio.

Personas trabajadoras de empresas no locales

Condiciones:

La persona trabajadora deberá estar empadronada en Lekeitio con al menos un año de antigüedad.

La persona solicitante deberá acreditar ser el titular o en su defecto ser conductor/a habitual del vehículo, mediante el permiso de circulación en caso de titular y mediante Póliza del seguro en caso de conductor/a habitual.

El vehículo deberá encontrarse sin sanciones pendientes de pago por infracciones de tráfico cometidas en Lekeitio.



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

KALEA 2017

Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia
2017ko uztailaren 5etik 9ra

www.kaleka.eus   



lekeitioko
udala